

**m a l e -
vich-en
herria**

Nora Aurrekoetxea Etxebarria
Laura Ruiz Sáenz

MALEVICH-EN HERRIA

*You say I am repeating
Something I have said before. I shall say it again.
Shall I say it again?*
—T.S. ELIOT

Hizkuntza dinamikoa da, baita hitzen bitartez esaten duguna, denboraren poderioz edo errepikapenaren eraginez alda daitekeena. Gure arbasoek erabilitako hitzak lotuz esanahiak asetzen saiatzen gara, eta askotan hitz berriak sortu ere, ekinean, ezinbestean hizkuntza eraldagarria da. Hitzek azala mudatzen dute, aho bakoitzeko zuloetatik ageriz norabideak bilatzen dituzte esaldiek, narrasean.

Narratsaileak gara, narratzaileak, zentzuen arrantzale; hizkuntzak diren ozeanoak belaki baten egarrion gorde nahian. Habia horretan arrautzak jarri ditugu, hortan dihardugu hitz-eztulean, azala zurituz. Eta gure azala zuritzetik, gure hitza zuritzera, ez da distantzia handirik; idazkia fosila ez baita eta idazlea arkeologoa ez baita. Idazleak idatzi arren esanahia irakurlearen barruan dago jada. Testuaren indarra bertan gauzatzen da, irakurlearengan. Nork bere hortz kobazuloa eraikiko du testua irakurtzen dagoenean, bakoitzak bere ahalmen propioa baitauka hortarako eta irakurketa horrek gorpuztuko du materia, karkaxa eta lerdea.

Ikusmenak munduaren inguruan dagoen gure lekua ematen digu, gure usteek eta zentzuek begirada-moldea sortzen dute, hortik datorkigu grina, ikusten ez diren gauzetan interesa aurki daitekeelako eta misterioek natura inguratzen dutelako. Idaztea ikuskor izatea da, ikus gaitzatela beraz, ez gara opakua, argiak zeharkatzen gaitu, hori gara material gizakiok.

Ez ote dira hitzak eta gizakiak galaxia desberdinetako izaki bikiak? Eta ez ote da Euskal Herria arte suprematistaren konposaketaz betea dagoen museoa?. Edozein herri ttipik bere konposaketak ditu, bai, edozein Euskal Herriko hiri handik bezelaxe. Badira hitz biluztuak kaleko kantoietan deiadarrean, esaldi mamia harriaren gainean. Badira baita garbiketaren izenean estaltzeko agindua ematen dituztenak ere, argi eta garbi. Emaiza aski nabaria da, denboraren zehar sortutako tamaina desberdinetako errektangulo luzangak, kolore garbi eta aratz desberdinetako karratuak, irukiak...forma eta modu desberdinetako irudiak sortuz, bata bestearen gainean eraikiz.

Errebindikazio baten hitzak agertu, gero estali, gero agertu, gero estali... errepikapenaren erritmoan kooperatiboki kontra. Batek bestea sortzen du, eta horrek bestea ahalbidetzen du, paradigma piktorikoa da. Formak edukiaren gainean eragiten du, aktiboki ezkutatzen du, hau da gure mundu ikuskorra. Hitzak ahoaren ezinean, hormetako hortz eta ertzetan jaio dira, agintarien hagineta mina. Edukia forma da.

Saguzaharrek belarriekin ikusten dute, eta askotan irudiekin entzuten dugu, nahi duenak... behintzat pintura- ren azpian ikus dezake.

Nahi duenak pinturaren azpian irakur dezake.

Nahi duenak paperaren azalaren zurian entzun dezake nahiz eta gure azala zuritzetik, gure hitza zuritzera, ez den distantzia handirik.

Nahi duenak hitzen azpian irakur dezake. Hauxe da hezurdura, aztarna, arkeologoentzat.

EL PUEBLO DE MALEVICH

*You say I am repeating
Something I have said before. I shall say it again.
Shall I say it again?*

—T.S. ELIOT

La lengua, así como aquellas cosas que decimos mediante palabras, es dinámica, la pueden modificar tanto el tiempo como la repetición. Uniendo las palabras que nuestros antecesores empleaban, intentamos saciar nuestros significados, y a menudo, insistentes, creamos también nuevas palabras: la lengua es obligatoriamente transformable.

Somos narradores, pescamos sentidos, intentando guardar los océanos de las lenguas con una esponja. Queremos poner huevos en ese nido, así seguimos tosiendo palabras, blanqueando pieles. Y de blanquear pieles a liquidar nuestra palabra no hay demasiada distancia, ya que el texto no es fósil y el escritor no es arqueólogo. Si bien el escritor escribe, el significado está ya dentro del lector. En su cuerpo se materializa la fuerza del texto. Cada uno construye su cueva de dientes al leerlo, ya que cada uno tiene su propia capacidad para hacerlo, y esa lectura dará cuerpo a la materia, flema y espumarajo.

La visión nos otorga nuestro lugar, situado alrededor del mundo, nuestras opiniones y sentidos crean nuestra manera de mirar, y de ahí nos viene esta pasión, porque las cosas que no se ven pueden resultar interesantes y porque la naturaleza está rodeada de misterios. Escribir es hacerse visible, por lo tanto, seamos vistos: no somos opacos, la luz nos cruza, eso somos los humanos en materia.

¿Las palabras y los humanos no son acaso seres gemelos de galaxias diferentes?

¿Euskal Herria no es acaso un museo lleno de composiciones de arte suprematista?

Todo pueblo pequeño cuenta con sus propias composiciones, al igual que toda gran ciudad de Euskal Herria. Palabras desnudas claman en las esquinas de las calles, la sustancia de una frase sobre la piedra. Están también esas palabras que son tapadas, en nombre de la limpieza, claramente. El resultado es suficientemente evidente, rectángulos alargados de diferentes tamaños que surgen con el paso del tiempo, cuadrados de diversos colores, claros y puros, creando imágenes de diferentes formas y tipos, construyéndolas unas encima de otras.

Aparecen palabras reivindicativas, luego se tapan, vuelven a aparecer, luego se vuelven a tapar... bailando al ritmo de la repetición, cooperativamente en contra. Una crea la otra, y esa hace posible aun otra más, ese es el paradigma pictórico. La forma cala en el contenido, lo esconde activamente, este es nuestro mundo visible. Ante la imposibilidad de la boca, las palabras nacen en los dientes y esquinas de las paredes, la dolorosa muela del juicio de los que juzgan. El contenido es forma.

Los murciélagos ven con los oídos, muchas veces oímos con las imágenes, quien quiera, al menos podrá ver por debajo de la pintura. Quien quiera podrá leer por debajo de la pintura. Quien quiera podrá oír en la blanca piel del papel, si bien no hay mucha distancia entre blanquear nuestra piel y liquidar nuestra palabra.

Quien quiera puede leer por debajo. Este es el esqueleto, el rastro, para los arqueólogos.

*SI
VIS
PACEM
PARA
BELLUM*

*“Mundu zaharra hiltzen ari da, berria ezin da jaio,
eta ilunbe horretan munstroak sortzen dira.”*

—Antonio Gramsci

“Bakea nahi baduzu, presta ezazu guda”, latinezko jatorrian goiburu gisa daraman proiektu honek, gatazka sozio-politikoaren baitan sorturiko iruditegi, sinbolo, borroka eta erresistentzia moldeak berkonfiguratzeko datza. Lurralde eta iruditegi lokal batetik abiatzen gara, su etenaren osteko Euskal Herriko kontextutik ain zuzen ere, alegia, urteetan zehar jasotako iruditegi kolektiboa berrikusi eta iruditeri ezartzaile berriak sortzeko momentu aproposa.

Zer gertatzen da iraganean baliagarriak eta legitimatuak ziren elementu solidoak trantsizio eta prozesu garaietan desagertu edota deseraiki direnean gaur egungo garai likidoetan?

Zygmunt Bauman-en hitzetan garai likidoak bizi ditugu; non arintasunak, bapatekotasunak, etengabeko aldaketek, osatu gabeko ideiek, izaera ezegonkorrek, aldakorrek... erreferenteak eta estruktra sozialak desegin dituzten, ez dute irausterik, ez dute errotzerik. Ia ia konturatu barik hainbat galera izan ditugularik, pentsamenduaren errenuntzia, memoriaren errenuntzia. “Ahazte hutsa garaipenaren ordaingarri gisa agertzen da”.

Aldaketa-galera hauek oso nabariak dira borroka armatuaren etenaren ondorioz euskal gendartean sorturiko ezjakintasunean. Identitatearen krisi sakona eragin duen PRE eta POST egoera argi bat. Aldaketa ezak paradigma berri baten sorrera galarazten du.

Iraganeko garai bati keinua egiten dioten objektuak, erresistentzia moldeak, leloak... baldin badira ere, egungo elementuekin elkarbizitzan daudenak dira. Tarteka agerikoak direnak, besteetan berriz inkontzientean gordelik.

Gramsci-ren zitak dioen bezala, mundu zaharra desagerturik, edo desagertzeko dagoenean, eta berria heltzeko dagoenean, baina ez denean iristen, munstruak ageri dira. Gris ilun batean zehaztu gabeko paradigma honetan mixtura, eboluzio, mestizaje, transformazio, eboluzio eta mutazio ikustezinak ematen dira.

Testuinguru honetan ulertu beharra dago aurkezten dugun proiektu hau, memoriaren tinkotasunaren eta uneak duen hauskortasunaren arteko elkarbizketa batean. Ikusi ezin edo ikusi nahi ez dena erakustean datza, begiratu eta enfokatzeko dugunarekin batera, hor dago auzia. Ausentziaren prezentziak ari gara.

Modu honetan memoria historikotik lan egiten da orainarekin zubiak eraikiz, arrastoa eta aztarna materia bihurtuz, eraldaturiko aztarna bererelatuaz.

Praktika artistikotik elementu hauen arteko erlazioak ditugu aztergai, gaur egungo ikuslegoarekin elkarbizketa aritzeko. Gatazka mahaigaineratzeak sortzen duen gatazka bera kolokan jarritz.

*“El viejo mundo se muere. El nuevo tarda en aparecer.
Y en ese claroscuro surgen los monstruos”*
—Antonio Gramsci

“Si quieres paz, prepara la guerra”, trata de reconfigurar símbolos, imaginario colectivo, moldes de lucha y resistencia dentro de los conflictos socio-políticos. Partimos de un territorio o imaginario local, el contexto vasco tras el alto al fuego, momento idóneo para resignificar y revisar el imaginario colectivo heredado y generar nuevos instituyentes.

¿Qué ocurre con elementos sólidos válidos, legitimados en una época pasada, cuando llega una época de transición y proceso en la que estos elementos se diluyen en un tiempo líquido?

En palabras de Zygmunt Bauman vivimos en un tiempo líquido, rapidez, instantaneidad, cambio constante, ideas fragmentadas, de carácter inconstante, voluble, en el que los referentes y estructuras sociales ya no perduran lo suficiente como para arraigarse, y en el que casi sin darnos cuenta hemos ido sufriendo pérdidas, como la renuncia al pensamiento, la renuncia a la memoria.

“El olvido se presenta como condición del éxito”.

Estos cambios y renunciaciones son muy visibles en una sociedad vasca marcada por la falta de cambio tras el final de la lucha armada, a la espera de un nuevo paradigma.

Un claro PRE y POST que generan una crisis identitaria colectiva. Moldes de lucha, resistencias, lemas, objetos... legítimos en un tiempo pasado que conviven en el presente.

A veces visibles, otras inconscientes.

Tal y como apunta la cita de Gramsci, ante la desaparición de un mundo y la espera de uno nuevo que tarda en aparecer, surgen los monstruos. Paradigma indefinido que da cabida a transformaciones, evoluciones, mutaciones y mezclas imperceptibles.

En este contexto, el proyecto que presentamos, supone un enfrentamiento entre la solidez de la memoria y la fragilidad del instante.

Se muestra lo que no alcanzamos a ver o no queremos ver, simultáneamente a lo que deseamos mirar y enfocar, “la presencia de lo ausente”.

Desde el resto del objeto de resistencia, la huella, lo quemado, destruido, desecho, fundido... se da la descontextualización de sus ruinas para dotarlas de nuevos usos simbólicos. Investigamos mediante la práctica artística posibles relaciones entre estos elementos para que sirvan de diálogo con el público actual y cuestionar el conflicto que genera el planteamiento del propio conflicto.

*Il vecchio mondo
sta morendo.
Quello nuevo
tarda a comparire.
E in questo
chiaroscuro
nascono i mostri*
—Antonio Gramsci

KREDITUAK

Proiektua

Laura Ruiz Sáenz & Nora Aurrekoetxea

Textuak

S.V.P.P.B. Laura Ruiz Sáenz & Nora Aurrekoetxea
MALEVICH-EN HERRIA. Beñat Romera. Krolem

Itzulpena

Danele Sarriugarte Mochales

Eskerrak

Zuhar Iruretagoiena Labeaga, Iago Rey, Jabier Arbizu,
Karlos Martínez B., Alberto Albor, Edu Hurtado
lagun eta senideei.

